

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko zenbait gauza kontuan izan behar ditugu, hala nola, eragileak, aktoreak edo bazkideak zein diren zehaztea.

Lehenengo eta behin, gure enpresaren bazkideak hurrengoak dira: alde batetik, aurkitzen ditugu hiru buru edo jabe, enpresaren kontuak zein beste betebeharrak koordinatzen dituzte; eta beste aldetik, gure negozioaren muina, langileak (drogazaleak).

Nahiz eta 3 nagusi egon horrela banatuko dugu ardura bakoitza:

Hasierako fasean, drogazaleek labeetan egongo direnez gero, guk izan behar gara jendearen aurrean egongo garenak. Josuk bezeroetaz arduratuko da. Natalyk, ordea, ogi bukatuak apalategietan antolatuko ditu. Azkenengoz, Luisak izango da drogazaleekin egongo den arduraduna, lana koordinatzeko, arazoren bat egotekotan esku-hartzeko, etab.

Horrelako antolaketa funtsezkoa dela iruditzen zaigu hainbat arrazoiengatik. Lehenengoa, gure langileekin hurbiltasuna izatea gustatuko litzaiguke, garrantzi handikoa iruditzen zaigulako haiek sentitzea gure laguntza eta gugan sostengatu dezaketela.

Gure antolakuntza hobeto ulertzeko:

LANPOSTUAREN IZENA: ogidun (egiten duena)
ESKATUTAKO TITULU AKADEMIKOA: elikagaiekin manipulatzeko titulua
EGINKIZUNAK
Sukaldean eta labeetan egongo da ogia egiten.

LANPOSTUAREN IZENA: ogi-saltzaile (saltzen duena)
ESKATUTAKO TITULU AKADEMIKOA: elikagaiekin manipulatzeko titulua
EGINKIZUNAK
Jendaurrean egongo da kobratzen eta jendea eskatzen duenaz arduratzen.

LANPOSTUAREN IZENA: administratzailea	
ESKATUTAKO TITULU AKADEMIKOA: goi-mailako gradua administraritzan	
EGINKIZUNAK	BEHAR DIREN BALIABIDEAK
<p>Enpresaren ekintzak justifikatu egingo ditu, eta horrekin batera fakturak zein dokumentuak jaso eta ordenatuko ditu, administratzailea baita.</p> <p>Gainera astero enpresaren ekintzak kontabilizatuko ditu segimendu konstante bat izateko, eta arazo bat izatekotan errazago konpondu ahal izateko aste horretan kontabilizatutakoan fijasen.</p> <p>Geroago, urte bat igarota, kontuak merkataritza erregistroan aurkeztuko ditugu justifikatzeko, zerga guztiak ordaindu ditugula ziurtatzeko, guztia kontabilizatu badugu ziurtatzeko... besteak beste.</p>	<p>Bulego materialaz aparte (karpetak...), erabilgarriagoa denez ordenagailu bat izango du kontuak eta horrelakoak errazago egiteko. Horretarako izango ditu "Contaplus" deritzon programa bat.</p> <p>Kontabilitate-legeak funtsezkoak izango dira ere, gure enpresa orden bat izateko eta momentu guztian jakiteko gure enpresa nola doan.</p>

Hori guztia aurrera eraman ahal izateko, drogen aurkako elkarteekin, Bilbokoak gure negozioa hemen egongo delako, lan egitea pentsatu dugu. Beraz, elkarte horretan dagoen jendea gure okindegira lan egitera etorri dezakete. Baina badaukagu beste irtenbide posible bat, adibidez, beste instituzioekin, hala nola, Eusko Jularitza, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera lan egitea diru-laguntzak lortzeko.